Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko maiatzean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko maiatzean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.629 izan da, apirilean baino 545 gehiago eta joan den urteko maiatzean baino 319 gehiago. Egunean bataz bestez 74 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino eskaintza 17 gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko maiatzean 257 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 648 Gipuzkoan eta 724 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 44,4 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 39,8 Gipuzkoan eta % 15,8 Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 90,4 hazi dira eskaintzak (122 eskaintza gehiago), Gipuzkoan % 47,6 hazi dira (209 eskaintza gehiago) eta Bizkaian eskaintza kopurua % 14,9 hazi da (214 eskaintza gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 60 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 30,5eko hazkundea; Gipuzkoan eskaintza kopurua 165ean hazi da, % 34,2ko murrizketa, eta azkenik, Bizkaian 94 eskaintza gehiago izan dira, % 14,9ko hazkundea.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. Ia 4 eskaintzeko 1 zerbitzuetako lanbide-profilerako erregistratu da (372 eskaintza); industriako langileen lanbide-profilak jarraitzen dio (282 eskaintza). Okupazio ez kualifikatu, laguntzarako teknikari eta zientzia teknikarien lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 263, 215 eta 198 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak izan dira (7).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, gehien hazi diren eskaintzak balore absolutuetan ez-kualifikatuen profilekoak izan dira (129 eskaintza gehiago, % 96,3ko hazkundea).Balore erlatiboetan, aldiz, gehien hazi diren eskaintzak lehen sektoreko profilekoak izan dira (28 eskaintza gehiago, % 400eko hazkundea). Profil guztietako eskaintzak hazi dira zuzendarienak izan ezik; hauek berdin mantendu dira 7 eskaintzekin.

Urte arteko saldoari erreparatuz, kasu honetan ere ez kualifikatuen profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (102 eskaintza gehiago, %63,3ko hazkundea), balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko profilekoak (%288,9ko hazkundea, 6 eskaintza gehiago). Murriztu diren eskaintzak bakarrak zuzendarienak izan dira (%3oeko murrizketa, 3 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 11,8k kontratu mugagabea eskaini dute; % 87,7k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,4k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 192 izan dira, 59 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 44,4ko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 489 gehiago erregistratu dira: 1.431 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 51,9koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko maiatzean 9 izan dira, aurreko hilean baino 3 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 23 gehiago izan dira (% 13,6ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 26,2 hazi dira, 297 eskaintza gehiago eta merkataritzako kontratuen eskaintza 1 gutxiagokoa izan da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko maiatzean erregistratutako lan-eskaintzen %72,1ak (1.175 eskaintza) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 16,3k (265) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 2,3ko eta % 0,4ko pisua dute, hurrenez- hurren (38 eta 6 eskaintza guztira).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, bai balore erlatiboetan eta baita balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (435 eskaintza gehiago, % 58,8ko hazkundea).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: gehien hazi diren eskaintzak 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (311 eskaintza gehiago, %36 hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintza motak 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (8 eskaintza gutxiago, %17,4ko murrizketa).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, 2019ko apirilean eta 2018ko maiatzean baino hilabete bat gutxiago.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 17,3k zehazten du datu hori (1.629 eskaintzetatik 282). 282 eskaintza horietatik, 208 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 74ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 84 gehiago izan dira apirilarekin alderatuz, hau da, % 67,7 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 18 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 32,1ekoa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 15 gutxiago izan dira (% 6,7ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko 15 eskaintza gehiago erregistratu da (% 8,8ko hazkundea). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko maiatza, 2019ko apirila eta 2019ko maiatza), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2019ko apirilean izan da, % 31,1eko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien aldean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 1,4 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.629 eskaintzetatik 23 soilik. Aurreko hilean 20 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 87,3k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.629 eskaintzetatik 206k soilik zehaztu dute.



206 eskaintza horietatik, 100ek LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 48,5ek); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, oinarrizko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 48 eskaintza (% 23,3). Ondoren, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak daude 47 eskaintzekin (% 22,8). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 11 eskaintzekin, eta % 5,3ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 206 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago maiatzean lan-eskaintza gehiagotan zehaztu dela prestakuntza maila, apirilean baino (158 eskaintza apirilean; 206 maiatzean), eta hauen pisua eskaintza guztien artean apur bat txikiagoa izan da (% 12,6 maiatzean eta % 14,5 apirilean). Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira batxilergokoak izan

ezik; ikasketa maila hau eskatzen duten lan-eskaintzak 1 gutxiago dira. Gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, LH eskatzen dituztenak izan dira (23 eskaintza gehiago, % 29,9ko igoera); balore erlatiboetan, aldiz, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 41,1eko igoera, 14 eskaintza gehiago).

2018ko maiatzarekin alderatuz, eskaintzak mota guztiak hazi dira, unibertsitatekoak izan ezik (3 eskaintza gutxiago, % 6ko murrizketa). Gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (27 eskaintza gehiago, %37ko igoera).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria, merkataritza eta jarduera administratiboak dira, eskaintzen % 16,1eko, % 15,3ko, % 13,3ko pisuarekin, hurrenez- hurren (262, 249, eta 214 lan-eskaintza 1.629 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintza motak, balore absolutuetan, administratiboak izan dira (110 eskaintza gehiago, % 105,8ko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, ur-horniketako eskaintzak izan dira (% 214ko igoera, 15 eskaintza gehiago). Eboluzio negatiboa izan dutenen bakarrak higiezinen arlokoak izan dira (% 11,1eko murrizketa, eskaintza 1 gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eboluzio okerrena pairatu duten eskaintzak, balore absolutuetan, eraikuntzakoak izan dira (17 eskaintza gutxiago, % 12,3ko murrizketa); aldiz, balore erlatiboetan, artistikoak izan dira gehien murriztu direnak (%34,5eko murrizketa, 10 eskaintza gutxiago), eskaintza kopuru garrantzitsu bat duten jardueren artean. Bestalde, administratiboak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (104 eskaintza gehiago, % 94,5eko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, etxeko jardueretako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (%200eko hazkundea, 12 eskaintza gehiago).